

## **LANDIKETZA PROIEKTUAK 2019**

### ***Ebazpena***

Behin legezko epean eta eran jasotako dokumentuak berrikusirik eta kanpoko adituek egindako ebaluazio txostenak aztertuta, Ikerketa, Garapen eta Berrikuntza Batzordeak (aurrerantzean IGBB) 2020ko otsailaren 7an hala proposatuta, Ikerketaren arloko Errektoreordetzak (aurrerantzean IAE) ERABAKI DU errektoreordetzaren webgunean deialdiaren ebazpena argitaratzeko agintzea.

#### **Behin-betiko onartutako eta baztertutako eskaeren zerrendaren zuzenketa:**

Onartutako eta baztertutako eskaeren zerrendaren publikazioan akatsa ohartuta, non bi ikertzaile nagusiren NAN zenbakiak ez datozen bat aurkeztutako eskaeraren kodearekin, COLAB19/17 eta COLAB19/02 eskaerei dagokien zuzenketa EGITEN dira.

#### **Ebaluazio-txostenak:**

Ikertzaile nagusiek beraien eskaerari dagokion ebaluazio txostenaren 1., 2. eta 3. irizpideak eska ditzakete. Horretarako, mezu bat behar dute helbide honetara [convocatorias.dgi@ehu.eus](mailto:convocatorias.dgi@ehu.eus), gaian "COLAB 2019 deialdia" jarriz.

#### **Errekurtsoak:**

Erabaki honek administrazio bidea agortzen du, eta beraren kontra egiteko honako bide hauek erabili ahal izango dira, baina inola ere ez aldi berean:

1. Aldez aurretik, aukerako berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango da erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik hasita hilabeteko epean, erabakia argitara eman duen organoaren beraren aurrean.

Administrazio errekurtso hori jarriz gero, eta errekurtsoa jarri eta hilabeteko epean esanbidezko erabakirik jaso ezean, errekurtsoa ezetsi egin dela ulertu beharko da. Horrela gertatuz gero, hurrengo atalean adierazitako auzibidera jotzeko aukera egongo da.

Errekurtsoa ezetsizat joa izan dela ulertuz gero, administrazioarekiko auzi errekurtsoa jartzeko epea sei hilabetekoa izango da, errekurtsoa ezetsizat jo eta biharamunetik kontatzen hasita (30/1992 Legea, azaroaren 26koa, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearena, 116 eta 117. artikulua; 29/1998 Legea, uztailaren 13koa, Administrazioarekiko Auzietako Jurisdikzioa arautzen duena, 46. artikulua).

2. Zuzenean, administrazioarekiko auzi errekurtsoa jar daiteke Bilboko administrazioarekiko auzien epaitegietan. Horretarako, bi hilabeteko epea dago, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita (administrazioarekiko auzietako jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 legearen 8.3 eta 46. artikulua).

#### **OHAR GARRANTZITSUA:**

Eskatzen da honi buruzko kontsulta guztiak posta elektronikoaren bidez egin daitezela, helbide honetara [convocatorias.dgi@ehu.eus](mailto:convocatorias.dgi@ehu.eus), **mezuaren gaian hau jarri: "COLAB deialdia"**.



Leioan, 2020ko otsailaren 12an

**IKERKETAKO DEIALDIEN ATALA**  
**IKERKETAREN GESTIOKO ZUZENDARITZA**  
**IKERKETAREN ARLOKO ERREKTOREORDETZA**

KODEA	NAN	Ebaluazio- irizpideak 1, 2, 3	Ebaluazio- irizpidea 4	Merezimendua: IN emakumezkoa	ESKAERAREN PUNTUAZIOA GUZTIRA	EBAZPENA	EMANDAKO LAGUNTZA
COLAB19/05	44088586R	76	5	2	83	EMANDAKOA	27400
COLAB19/09	72457843T	78	0	2	80	EMANDAKOA	18300
COLAB19/07	16257793J	67	10	2	79	EMANDAKOA	25900
COLAB19/03	15969685A	72	5	0	77	EMANDAKOA	20200
COLAB19/15	22730471P	65	10	2	77	EMANDAKOA	25200
COLAB19/08	16037937Z	69	5	2	76	EMANDAKOA	12400
COLAB19/19	44128401A	70	5	0	75	EMANDAKOA	24600
COLAB19/02	11912630X	62	10	0	72	EMANDAKOA	23600
COLAB19/18	08924295L	71	0	0	71	EMANDAKOA	23300
COLAB19/06	14602834L	64	5	0	69	EMANDAKOA	22600
COLAB19/14	45673099K	62	5	2	69	EMANDAKOA	11300
COLAB19/11	18204019W	55,5	10	2	67,5	EMANDAKOA	22300
COLAB19/04	78958405A	60,5	5	0	65,5	EMANDAKOA	21600
COLAB19/01	15971355V	65	0	2	65	EMANDAKOA	21300
COLAB19/16	30553285Q	53	5	2	60	UKATUTAKOA Kreditua agortu da Ez du betetzen 12.1 Oinarria	
COLAB19/10	15245496S	33	5	2	40	UKATUTAKOA Kreditua agortu da 1, 2, 3 ebaluazio- irizpideen batuketak 50 puntu baino gutxiagokoa da. (15. Oinarria)	
COLAB19/12	02885345H	0	0	0	0	BAZTERTUA Ez du betetzen 12.1 Oinarria	
COLAB19/17	22735563V	0	0	0	0	BAZTERTUA Ez du betetzen 12.1 Oinarria	